

ALEGAZIO OROKORRAK (EHNE)

NATURA-ONDAREA KONTSERBATZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA

ALEGAZIO A	ERANTZUNA
I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK <u>2. ARTIKULUA. HELBURUAK</u> Uste dugu helburuak oso orotarikoak direla, eta gustatuko litzaiguke nabarmentzea natura-ondarea kontserbatzeko lan egiten duten pertsonen garrantzia. Ekintza hori erabat dinamikoa da, eta, zalantzarik gabe, giza baliabideak behar ditu. Artikuluko e) puntuan aipatzen da espezie basatiak era jasangarrian erabiltzen direla. Lerro horiei lotuta, basurdearekin dagoen arazoa gogorarazi nahi dizuegu (bakarra aipatzearren). Balantzea egingo bagenu, ondorioztatu ahalko genuke negatiboa dela. Espezie horren gainpopulazioak kalte jarraituak eragin ditu; biodibertsitatea galtzea, galera ekonomikoak nekazaritzako ustiatagietan galera eta osasun-arriskua da bai etxe-abereentzat bai pertsonentzat. Gu, baserritarrak, nekatu egin gara populazioa kontrolatzeko eta behingoz ekiteko eskatzeaz. Horrek erakusten du landa-eremuko bizikidetzatza, gaur egun, oraindik utopia dela. Artikuluko f) puntua: Ados gaude natura-ondarearen kontserbazioari aplikatutako ezagutza, prestakuntza eta ikerketa sustatzearekin. Hala ere, azpimarratu nahi dugu lan horretan hainbat diziplinatako pertsonak esku hartu behar dutela, bermatzeko nekazaritza, abeltzaintza eta basoko jardueretako sentikortasun positiboa duten pertsonak parte hartzen dutela; alegia, landa-eremuaren egungo ikuspegia edo errealitatea islatzen duten pertsonak.	Helburuak ezinbestean izan behar dira orotarikoak, natura-ondarea ezin baita erabilera eta gozamen eksklusibokoa izan. Hori berretsi egiten da 3. artikuluko (Aurreproiektuaren printzipioak) 2.g) puntuan («Pertsona publiko eta pribatu guztiek erantzunkidetasuna izatea, natura-ondarearen erabiltzaile eta onuradunak diren aldetik, lege honen helburuak erdiesten»). Gainerako iritziak ez dira Lege honen eremukoak, eta, kasu askotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari legez ez dagozkien eskumenen ingurukoak dira.



Nahizanez gero, J0D0Z-T1FGH-Y1Q1 bilagailua erabiltza, dokumentu hau egiazkoa den

EHNE ALEGAZIOAK: NATURA-ONDAREA KONTSERBATZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador

J0D0Z-T1FGH-Y1Q1 en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>

Orrialdea: 1

3. ARTIKULUA. PRINTZPIOAK

Artikuluko 1) puntua: idazketa-proposamena: «Euskal administrazio publikoek Lege hau aplikatzen dutenean printzipio hauetan oinarrituta jardungo dute: jasangarritasuna, prebentzioa, ardura edo zuhurtzia, kalteak konpontzea (sorburuan konpontzea lehenetsiko da), eta kutsatzen duenak ordaintzea eta kontserbatzen duenak kobratzea».

Halaber, Administrazioari eskatzen diogu, alde batetik, baserritarrek ematen dituzten ingurumen-zerbitzuak aitortzen dituen arau-esparru bat sustatzeko, eta, bestetik, tokiko produktuak eta gertukoak laguntzera bideratutako erosketa arduraturako politika bat egiteko.

Artikuluko 2) puntua: Ez gaude ados aipamen honekin: «...kontuan izan gabe ondarearen titulartasuna eta araubide juridikoa...».

Hasiera batean, ez dirudi printzipioek arazo handirik sor dezaketenik, baina nekazaritza, abeltzaintza eta basoko jarduerak egunero-egunero gauzatzeak eta jarduerak izan ditzaketen kalteak are gehiago zaildu dezakete egungo egoera. Batzuetan, etekin ekonomikoan eragin zuzena duten zenbait muga eta debeku ezartzen dira arrazoi argirik gabe, edo jabearentzako ondorio negatiboak dituzten zenbait ekintza onartzen dira jabetza pribatuan, eta ez dira kontuan hartzen.

Gure ustez, jabetza pribatua arautzen bada, inplikaturik dauden guztien erantzukizunak eta eskubideak ondo zehaztu beharko lirateke, eta ez litzateke harreman desorekatuak egon beharko.

Neurri mota horiek **VI. TITULUARI** dagozkio (Natura-ondarea kontserbatzeko sustapen-, ekonomia- eta finantza-neurriak).

Ezin dugu salbuespena jarri kasu horretan, aplikatu behar diren Europako zuzentarauetan eta Estatuko oinarritzko legerian ere ez baitute salbuespenik.

4. ARTIKULUA. DEFINIZIOAK

Definizio hau sartzea:

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako ustategien zerrenda: erregistro publikoa, administratiboa, jarduera nagusiaren arabera sailkatutako nekazaritzako ustategiena eta galzorian daudenena. Erregistratutako jardueretan parte hartzen dutenak dira, gehienbat, natura-ondarea kontserbatzeaz eta ondo erabiltzeaz arduratzen direnak. Lan hori aitortzeko ordua da; adierazi nahi dugu nahikoa inplikatzeko direla eta ezin ditugula desagertzen utzi.

Zenbait alegazio aintzat harturik, jatorrizko testuaren ia alegazio guztiak ezabatu dira, eta ez da sartuko goragoko mailako arau batean dagoen nahiz arau honetan berariaz garatzen den definiziorik.

<u>5. ARTIKULUA. EGINKIZUN SOZIALA</u> Lehen sektoreak, historikoki, gizarteak oro har aitortu ez duen eginkizun soziala gauzatu du. Nekazaritza, abeltzaintza eta basoko jabeen eskubideak errespetatzea eskatzen dugu, beraiek egin baitute natura-ondarea kontserbatzeko benetako lana. Gure ustez, jabetza pribatua arautzen bada, inplikatura dauden guztien erantzukizunak eta eskubideak ondo zehaztu beharko lirateke, eta ez litzateke harreman desorekaturik egon beharko.	Testu berrian, eginkizunari buruzko artikuluan, dagoeneko sartu da lehen sektoreak egin duen ekarpena. Onartu egin da proposamena.
<u>6. ARTIKULUA. HERRITARREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK</u> Proposatzen dugu artikulua betebeharrak eta eskubideak orokorrean jorratzea. Gure ustez, betebeharrak eta eskubideak guztienak dira, bai herritarrenak bai administrazioenak.	Hori egin da testu berrian; administrazio publikoen betebeharrei eta eskubideei buruzko artikulua bat sartu da, eta herritarren betebeharrei eta eskubideei buruzko beste bat.
II. TITULUA.- ESKUMEN- ETA ANTOLAMENDU-ARAU BIDEA <u>9. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESKUMENAK</u> Zer ondorio izango lituzkete administrazio publikoek beren erantzukizunak betetzen ez badituzte? Adibidez: Zer ondorio du legea betearazteko erantzukizuna ez hartzeak? Egutegirik aurreikusten al da Lege honetako gainerako xedapenak garatzeko?	Ez dagokio Lege honi erantzukizun mota horiek ezartzea.

<u>11. ARTIKULUA. INGURUMENENKO AHOLKU BATZORDEA</u> Artikuluko 3) puntua: Dekretua egiteko prozesuan, osaketa ezartzerakoan, eskatzen dugu NEP gisa hartzea (Nekazaritzako Erakunde Profesionala).	Bidezkoa da, eta kontuan izango dugu.
III. TITULUA.- NATURA-ONDAREA EZAGUTU, PLANIFIKATU ETA BABESTEKO TRESNA OROKORRAK I. KAPITULUA. EUSKADIKO NATURA-ONDAREAREN INBENTARIOA <u>12. ARTIKULUA. EUSKADIKO NATURA-ONDAREAREN INBENTARIOA</u> Artikuluko 2) puntua: Euskadiko nekazaritzako ustategien zerrenda txertatzea. Artikuluko 4) puntua: Gure iritzian, ez dauka zentzurik administrazio bakoitzak inbentario bat egiteak. Egokiena izango litzateke informazio guztia biltzen duen inbentario bat izatea.	Hori ez da Natura Ondarearen Inbentarioaren helburuetako bat. Azken testuan zehazten da administrazio-erregistro izaerako inbentario bakar bat dagoela.
<u>14. ARTIKULUA. EUSKADIKO NATURA EZAGUTZEKO SAREA</u> Ez da aipatzen sareak araudiaren arabera funtzionatuko duen. NEP gisa sartzea eskatzen dugu.	Zera aipatzen da 2. puntuan: «Sareko kideak, besteak beste, hauek guztiak izan daitezke: naturaren kontserbazioan inplikaturik dauden administrazio publikoak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, enpresak, elkarte sozialak eta pertsonak, betiere Euskadiko Naturaren Informazio Sistema hedatu eta hobetzera konprometitzen badira». Beraz, proposamen horrek zentzua dauka, eta, eskatu bezala, kontuan izango da.

III. KAPITULUA. BALIABIDE NATURALAK ANTOLATZEKO PLANA <u>25. ARTIKULUA. HABITAT MEHATXATUAK</u> Zer izango dira perturbazio-faktoreak? Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera bati kalte egiten badio baina ez bada perturbazioaren eragilea, nola jardungo da? Arazo bera daukagu, berriz ere: betebeharrak aipatzen dira, baina ez dira zehazten perturbazio-faktoreak kalte egiten dien pertsonen mugak ezta eskubideak ere.	Europako zuzentarauek nahiz Estatuko oinarrizko legeriak –Natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legea– definitzen dute «perturbazio-faktore» terminoa.
IV. KAPITULUA. NATURA-ONDAREA EZAGUTU ETA BABESTEKO BESTELAKO TRESNAK <u>26. ARTIKULUA. LOTURA EKOLOGIKOAREN PLANGINTZA</u> Artikuluko 3) puntua: Sektore ekonomikoek balio natural handiko sistemak kontserbatzeko aplikatzen dituzten jardunbide egokiak aipatzen dira. Zer ikertu da gaiaren inguruan? Gidalibururen batean bilduta daude jardunbide egoki horiek? Aurreikusten al da dirulaguntzak ematea jardunbide horiek aplikatzen dituzten baserritarrei?	Azken testuan, aldatu egin dira erreferentzia horiek, eta beste egitura bat izango dute artikuluek. Artikuluetan aipatzen diren garapenek ez dute Legea jorratu beharko, edukiak baizik.
<u>28. ARTIKULUA. IRAGAZKORTASUN EKOLOGIKOAREN NEURRIAK</u> 1. puntuko e) apartatua: puntu hori ezabatzea eskatzen dugu, gure iritzian ez daukalako inolako zentzurik. Irakurri 2. artikuluan egin diren ekarpenak: Benetako arazoa dago basurdeen gainpopulatzearen ondorioz, eta lehenbailehen konpontzeko eskatzen dugu.	Ez gaude ados ikuspuntu horrekin; gainera, iragazkortasun ekologikoa dagoeneko txertatuta dago bai lurralde-antolamenduko araudian bai Europako araudian. Ohar horrek ez dauka inolako zentzurik Lege honetan.

<u>41. ARTIKULUA. SEINALE-ZORTASUNA</u> Seinaleen inguruko erantzukizunak zehaztea eskatzen dugu. Adibidez: seinale bat haustea ezustean zuhaitz bat erortzen bada, edo eguraldi txarraren ondorioz haustea, etab. Jabe pribatuak ez lirateke arduratu beharko seinaleak konpontzeaz; aldiz, administrazioek hartu beharko lituzkete bere gain seinaleak kontserbatu eta konpontzeko kostuak. Artikuluko 4) puntua: Eskubide hori idatziz egoteaz gain, administrazioak bere erantzukizuna hartu eta gauzatu egin behar du.	Artikulu honetako 1. apartatuan esaten den bezala, «naturagune babestu baten mugen barneko lursailek identifikatuko dituzten seinaleak instalatzeko nahitaezko zortasuna izango dute, foru-organo eskudunek zehaztutako prozedurari jarraikiz». Beraz, foru-organo eskudunek gauzatu behar dute. Gutziz ados gaude iritziz horrekin.
<u>42. ARTIKULUA. ONURA PUBLIKOA</u> Lehen sektoreak, historikoki, gizarteak oro har aitortu ez duen eginkizun sozial eta publikoa gauzatu du. Nekazaritza, abeltzaintza eta basoko jabeen eskubideak errespetatzea eskatzen dugu, beraiek egin baitute natura-ondarea kontserbatzeko benetako lana. Gure ustez, jabetza pribatua arautzen bada, inplikaturik dauden guztien erantzukizunak eta eskubideak ondo zehaztu beharko lirateke, eta ez litzateke harreman desorekatu egin beharko.	Artikulu ezabatu da, besteak beste, adierazi dituzuen alegazioekin bat datozen arrazoiengatik.
<u>43. ARTIKULUA. LEHENTASUNEZ EROSTEKO ESKUBIDEA ETA ATZERA ESKURATZEKO ESKUBIDEA</u> Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak ez du bermatzen natura-ondarea kontserbatu eta kudeatuko direnik; horregatik, artikulua ezabatzea eskatzen dugu.	Ez dugu bat egiten irizpide horretan; lehentasunez erosteko eskubideak erabiltzea natura-ondarea babesteko tresna baliotsua dela iruditzen zaigu.

<u>44. ARTIKULUA. BABES-EREMU PERIFERIKOAK</u> Ez da zehazten babes-eremu periferikoen funtzionamendua: nork izendatzen dituen, zer espazio hartzen duten, mugak, erabilerak eta onartutako jarduerak... Mugak ezartzeak kezkatzen gaitu, ez baita ezer zehazten horren inguruan.	Artikulu honetako 2. apartatuak dioen moduan, «babes-eremu periferikoen mugaketa eta eremu horretako erabilera eta jardueren araubide eta muga espezifikoak eremu babestuaren deklarazio- edo izendapen-arauan sartu beharko dira edo dagokion plangintza-tresnan». Deklarazio- edo izendapen-prozedurak aukera ematen die interesdunei parte hartzeko, eta galdetzen zaizkien gaien arabera, eragina izan dezakete eremu guztietan.
<u>45. ARTIKULUA. IZENDAPENA BABESTEA</u> Zer kasutan emango da izendapena erabiltzeko baimena?	Artikuluko 2. puntuan adierazten den bezala, organo kudeatzaileek baimentzen duten kasuetan; eta baimen hori izan ahalko dute «edozein eratako pertsonen, publikoak edo pribatuak, merkataritza, publizitate edo antzeko irabazizko helburu baterako, dagozkien erregistro publikoek eskuratutako eskubideei eragotzi gabe».
<u>46. ARTIKULUA. ERAUZKETA-JARDUERAK</u> Euskal Autonomia Erkidego osoan haustura hidraulikoa debekatzea eskatzen dugu.	Haustura hidraulikoa oro har debekatzea, proposatzen duzuen bezala, partekatzen dugun helburua izan daiteke, baina ezin da Lege honetan horrela antolatu, konstituzioaren kontrakoa izango litzatekeelako.

<u>49. ARTIKULUA. PARKE NATURALAK</u> Artikuluko 1) puntua: Parke naturalen definizioa aldatzea eskatzen dugu. Idazketa-proposamena: Parke naturalak eremu zabal samarrak dira, gizakiaren ustiapen edo okupazioarengatik gutxi transformatuak, ekosistemen edo habitaten adierazgarritasunagatik, bertako flora, fauna edo ondare geologiko bereziarengatik (bertako formazio geomorfologikoak edo paisaien edertasuna barne) balio ekologiko, estetiko, hezigarri eta zientifikoak dituztenak; beren kontserbazioak lehentasunezko arreta merezi du, eta bateragarria da baliabide naturalak era jasangarrian aprobeztatzearekin eta biztanleen jarduerekin. Artikuluko 2) puntua: Mugak ezartzeak kezkatzeko gaitu, ez baita ezer zehazten horren inguruan. Artikuluko 3) puntua: Zer eskubide dituzte titularrek?	Kasu honetan, ezinbestekoa da administrazio publikoek ematea lehentasunezko arreta, Hegazti eta Habitat Zuzentzerak eta Estatuko oinarriko legeria –Natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legea– betez. Proposatutako definizioa ez dator bat aipatutako arauarekin. Legeak ez ditu erabilera-araubideak ezta horien ondorioak definitu behar; espazio bakoitzerako egingo diren planei dagokie hori.
<u>50. ARTIKULUA. ERRESERBA NATURALA</u> Artikuluko 2) puntua: Mugak ezartzeak kezkatzeko gaitu, ez baita ezer zehazten horren inguruan.	Legeak ez ditu erabilera-araubideak ezta horien ondorioak definitu behar; espazio bakoitzerako egingo diren planei dagokie hori.
<u>51. ARTIKULUA. MONUMENTU NATURALA</u> Artikuluko 2) puntua: Mugak ezartzeak kezkatzeko gaitu, ez baita ezer zehazten horren inguruan.	Legeak ez ditu erabilera-araubideak ezta horien ondorioak definitu behar; espazio bakoitzerako egingo diren planei dagokie hori.

<u>52. ARTIKULUA. PAISAIA BABESTUA</u> Artikuluko 2) puntuko b) apartatua eta 3) puntua: ikuspegirik egokiena dela iruditzen zaigu, eta uste dugu dokumentu osoan txertatu beharko litzatekeela.	Ez dugu oharra ulertzen.
<u>53. ARTIKULUA. DEKLARAZIO-PROZEDURA</u> Artikuluko 3) puntua: Parke naturalak falta dira.	Ez; azken testuak, behintzat, naturagune babestu mota guztietarako deklarazio-prozedura dauka.
VI. TITULUA.- NATURA-ONDAREA KONTSERBATZEKO SUSTAPEN-, EKONOMIA- ETA FINANTZA-NEURRIAK <u>88. ARTIKULUA. GARAPEN SOZIOEKONOMIKORAKO PROGRAMAK</u> Artikuluko 1) puntua: idazketa-aldaketa. Esaldi hau ezabatzea proposatzen dugu: «...aurrekontuetako ahalbideen barruan...». Ulertzen dugu dena aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera dela, baina ez da dokumentu osoan berriz zehazten. Hala eta guztiz ere, ulertzen dugu naturagune babestuaren lurralde-eremuan sartuta dauden herrien garapen sozioekonomikorako programak oso garrantzitsuak direla, egunerokotasunean ezinbestekoak direlako jardueren bateragarritasuna eta bizikidetzat. Behar diren dirulaguntzak eta pizgarriak egingarriak izan daitezen, administrazioak hartu behar du ardura, natura-ondarea kontserbatu eta kudeatzen dute eta.	Ezin da ezabatu, Legearen arabera ezin dugulako beste era batera ezarri. Erabat ados gaude iruzkin horrekin; joera horri jarraitu diogu VI. titulua idaztean.

<u>89. ARTIKULUA. KALTE-ORDAINEN ARAUBIDEA</u> Administrazioari eskatzen diogu konpromisoa har dezan araubidea Lege hau argitaratu eta, gehienez ere, urtebetera garatzeko, eta hori adieraz dadila bertan.	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gai honen inguruko araubidea garatzeko asmoa du, baina, kontuan harturik horri lotutako erregelamenduak, betetzeko zailak diren epeak ezartzeak ez du bermatzen epearen barruan egingo denik.
<u>91. ARTIKULUA. JABE PRIBATUEKIN AKORDIOAK NATURA-ONDAREA BABESTEKO</u> Akordioak araudiaren garapenaren arabekoak izango badira, eskatzen dugu Legea argitaratu eta urtebeteko epean jar dadila indarrean; hori adieraz dadila bertan eta guztiei (administrazioa eta biztanleak) berma diezaietela eskubideen eta betebeharren arteko oreka.	Eskaera horiek Legebiltzarrak Lege-aurreproiektu hau onartu ondoren gauzatu behar dira.
<u>92. ARTIKULUA. ZERGA-NEURRIAK</u> Artikuluko b) puntua: laguntza ekonomikoak, konpentsazioak (ordainketak) eta kalte-ordainak gehitzea.	Laguntza ekonomikoak, konpentsazioak eta kalte-ordainak ez dira zerga-neurriak.
<u>97. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA</u> Artikuluko 1.c) puntuko 3., 11. eta 12. apartatuak: Administrazioari eskatzen diogu Lege honi lotutako eskubide eta betebeharren berri eman diezaien biztanle eta erabiltzaile guztiei.	Legea bera argitaratzeak (azken xedapena) barne hartzen du jendaurreko informazioaren izapidea eta argitalpena, onartu ondoren.